



Komuneko buelta

Haur Hezkuntza

IKAS-EGOERAK AHALBIDERATZEN DITUZTEN ESPAZIO, MATERIAL

ETA ESKU-HARTZEEN DISEINUA

Ekosistemaren/Espazioaren izaera: *diseinatu dugun edo diseinatu nahi dugun espazioaren identitatea zein den (kanpo-barne espazioa, lengoia(k), zaintza, ongizatea, segurtasun afektiboa, familia(k), ...)*

Komuna

- Pasabidean dagoen espazio komuna dugu.
- Neska-mutilak nahastuta erabiltzen duten espazioa da.
- Harraska handi bat dago haurren eskura, iturri batzuk ur hotza dute eta beste batzuk beroa.
- Haurren tamainako 3 komun daude. Komun bakoitzaren ondoan komuneko papera zintzilikatua dago eta bonba eskura dute erraz erabiltzeko modukoa.
- Helduaren eskura daude:
 - Beraientzat edota haurren bat bainatu behar bada harraska.
 - Haurrak aldatzeko aldagailua dago (oso hotza eta larrua pegatzen zitzaienez hurrei, aldetzeko koltxoia aldatu zen). Bertara haurra igotzeko eskailerak daude (haurrak aukeratzen du aldatua nola nahi duen izatea).
 - Ipurdia garbitzeko ur beroa, xaboi neutroa eta haur bakoitzarentzat esponja erabiltzen da bai eta bere toalla espezifikoa (ez dira toailatik erabiltzen), haurraren azala eta iraunkortasuna zaintzeko, hurrenez hurren.
 - Haurren batek botaka egiten badu hori lehertzeko material espezifikoa apalean dago.
 - Ile-lehorgailua dago behar ezberdinak asetzeko.
 - Profesionalek eskuak garbitu eta lehertzeko xaboi eta toailak hurrek bezalaxe dute.
 - Hiru hankako aulkia dago hezitzailea edota haurren batek akonpainamendua edota konpainia egiten duen bitartean bertan esertzeko.

- Haurren eskura daude:

- Komuneko papera. Bukatzen bada, ordezkatzeko erroiluak haurren eskura daude.
- Xaboaia. Xaboi-pastilla erabiltzen da, ez likidoa. Batetik, hurrek erabiltzeko, manipulatzeko. Bestetik, xaboi dosiak pastillan norberak neurtzen duenez, iraunkortasuna lantzea du helburu.
- Toaila(k). Indibidualak dira otarrera botatzen direnak ondoren egunero garbitzeko.
- Haginak edota hortzak garbitzeko beharrezkoak direnak haur bakoitzak du eskura.
- Mukiak kentzeko papera dago aldamenean (komuneko papera ez dena).
- Ispilua. Bata, mukiak kentzeko neurrian. Bestea, komunaren irteeran gorputz osoa ikusteko moduan.
- Hurrek eskura dute beraien aldatzeko arropak eta beharko balute fardelak.
- Arropa edota galtzerdiak kenduta egon behar badute, aldatu behar badira oinetan jartzeko alfonbra dago eskura oinak ez hozteko.
- Otarre batean, ipuin, aldizkari, Berriako Mantangorri eta argazki bitxiz eginiko albuma dago komunen ondoan, haurren batek hartu eta komunean dagoen bitartean nahi badu, izan dezan.

- Komuna iluna zenez (lehen geruza):

- Hormak zuriz margotu ditugu, argi goxo eta ezberdinak jarri ditugu bi landare eder jarri ditugu zintzilika eta lehorrak (alkoholez eta labanda esentziaz bustitakoak), ispiluak jarri ditugu argien inguruan, gauza guztiek dute bere lekua eta bere lekuan daude gauza guztiak.

Ekosistemaren/Espazioaren antolaketaren helburua(k) eta justifikazioa.

Helburuak:

- Espazio honetan gorputza ezagutzen eta kontrolatzen joatea.
- Gorputzaren balorazioa, auto irudi doitua eraikitzen joatea.
- Norberaren kontzientzia hartzen joatea. Norberak zer ezaugarri eta bereizgarri dituen jakitea eta gainerako pertsonetikiko diferentziak eta antzekotasunak identifikatzea.

- Espazio honetako baliabideak, objektuak behar bezala erabiltzen ikastea.
- Norbere burua zaintzen ikasteko, higienearen eta garbitasunaren jokabide-ildo egoki eta osasungarriak eskuratzen joatea
- Haurraren zaintza eta segurtasun afektiboa.
- Gorputzaren oinarrizko zer beharrizan dituen jakitea eta haiek adieraztea. Konfiantza izatea norberak beharrizan horiek asetzeko duen ahalmenean.
- Gorputz lengoia zein ahozko hizkuntza komunikazio baliabide gisa.
- Iraunkortasunari begira neurri eta erabaki batzuen kontzientzia hartzen joatea eta adostea.

Justifikazioa:

Eskolako egunero ematen den egoera esanguratsua da. Espazio hau lasaitasun eta segurtasun afektiboko giroan erabili behar da.

Komuneko buelta egunero behin baino gehiagotan gauzatzen den gertakaria da. Behar horri dagokion lekua, momentua, espazioa, denbora eta esku-hartzea eskaintzea ezinbestekotzat hartzen da etapa honetan bederen. Hauen oinarri edota sustraiak: segurtasun afektiboa, garapeneko autonomia, higie pertsonala, ohitura osasungarriak, ongizate fisiko eta psikikoa, zaintza, gorputzaren deskubrimendua/ezagutza/onarpena/kontrola eta bizipenak, harremanak (segurtasun afektiboa, komunikazioa, adierazpena, hizkuntza(k) (entzumena-ahozkoa, irakurketa), matematika, sormena, iraunkortasuna, herritartasuna.

Zikloa:

- Lehengo zikloa
- Bigarren zikloa. 4 urtekoen gela

Haurren adina, garapen maila(k) eta ezaugarriak (*komunikazioa eta adierazpen erak, hizkuntza(k), ingurunea, aprendizai estiloa(k)...*).

Talde honen adina 4 urtekoa, talde osoko kideek ez dute garapen berdina da garapen, heldutasun, ahalmen eta hizkuntza mailari dagokionez. Adibidez, haur batek fardela erabiltzen du, beste batzuk arropa eransteko laguntza behar dute, besteren batek arropa eransteko laguntza eskatzen du. Kaka egin ondoren ipurdia garbitzeko laguntza eskatzen duenik ere bada. Komuna garapen maila ezberdinetarako antolatua dagoela eta bakoitzak bere behar, nahi, eskakizunak asetzeko eskainia dugu. Hala nola, bakoitzaren estiloak (ohiturak, denborak, behar fisikoak...), egunerokoak (kaka lehorrak, ez horren

lehorrak, pixa sarri egiteko beharrak, lagunduta egotea nahi edota behar duten haurrak, intimitatean ez badute, ezin dutenak komuna erabili...). Bai eta komunikazioa bermatzen dutenak ere (helduarekin hizketaldiak, berdinekin hizketaldiak, liburu edo objektuekin hizketaldiak, besteek esaten dutena entzutea...) edota garapeneko autonomia garatzen dena (hizketaldian parte-hartu edo ez, komun bat erabili edo bestea, iturri bero edo hotza erabiltzearen aukeraketa, fardel bat edo bestea aukeratzea, xaboi-pastilla erabilita aukeratzea zenbat xaboi behar duen, nola nahastu xaboa eta xaboiaren aparra...).

Eremuak:

- 1. eremua: Harmonian hazten.
- 2. eremua: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea.
- 3. eremua: Komunikazioa eta errealitatearen adierazpena.

Funtsezko kompetentziak:

- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia
- Konpetentzia eleaniztuna
- Matematikarako eta zientziako, teknologiko eta ingeniartzako kompetentzia
- Konpetentzia digitala
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko kompetentzia
- Herritartasunerako kompetentzia
- Ekintzailtza-kompetentzia
- Kontzientzia eta Adierazpide Kulturalerako Konpetentzia

Kompetentzia espezifikoak:

1. eremua: Harmonian hazten.

- 1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi doitua eraikitzeke.
- 2. Progresiboki emozioak ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea beharrak eta sentimenduak adieraziz ongizate emozionala eta segurtasun afektiboa lortzeko.
- 3. Eredu, arau eta ohiturak bereganatzea, aukera propioetan konfiantza eta lorpen sentimenduak garatuz, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsua den bizimodu osasuntsua bultzatzeko.
- 4. Berdintasun baldintzak dituzten gizarte-interakzioak ezartzea, laguntasunaren, errespetuaren eta enpatiaren garrantzia balioetsiz, balio demokratikoetan eta giza-eskubideen errespetuan oinarrituta bere nortasun propioa eraikitzeke.

2. eremua: Ingurunea deskubritzen, gozatzen eta aztertzen.

- 1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen-manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.
- 2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.
- 3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.

3. eremua: Errealitatea komunikatzen eta irudikatzen.

- 1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta inguruneke eskakizunei erantzuteko.
- 2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeko.
- 3. Hainbat lengoaia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutzuz eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorrean, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.
- 4. Idatzizko testuekin lotutako jardueretan parte hartzea norberaren inizatibarekin, funtzionalitatea eta ezaugarrietako batzuk ulertzeko interesa eta jakinmina adieraziz.
- 5. Komunikazio-estrategiak eta kultura-ezagutza aberasteko, haurren ingurunean dagoen aniztasun linguistikoa eta beste kultura-adierazpenak baloratzea

Oinarrizko jakintzak. Lehen zikloan:

1. eremua: Harmonian hazten.

- A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa.
- B. Oreka eta afektibitatearen garapena.
- C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarenerako mesedegarriak diren bizitza-ohiturak.
- D. Oreka eta afektibitatearen garapena.

2. eremua: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea .

- A. Gorputzaren harremana ingurunearekin. Objektua, materialak eta espazioak sormenez esploratzea.
- B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.
- C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.

3. eremua: Errealitatea komunikatzen eta irudikatzen.

- A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak.
- B. Hizkuntzak eta beren hiztunak.
- C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa.
- D. Idatziko hizkuntzara hurbiltzea.
- E. Hizkuntza eta musika-lengoaia.
- F. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala.
- G. Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.

Oinarritzko jakintzak. Bigarren zikloan:

1. eremua: Harmonian hazten.

- A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa.
- B. Oreka eta afektibitatearen garapena.
- C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarenerako mesedegarriak diren bizitza-ohiturak.
- D. Elkarreragin sozio-emozionala ingurunean. Bizitza besteekin batera.

2. eremua: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea.

- A. Gorputzaren harremana ingurunearekin. Objektua, materialak eta espazioak sormenez esploratzea.
- B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.
- C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.

3. eremua: Errealitatea komunikatzen eta irudikatzen.

- A. Komunikazio-asmoa eta komunikazio-interakzioa.
- B. Hizkuntzak eta beren hiztunak.
- C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa.
- D. Idatziko hizkuntzara hurbiltzea.
- E. Literatura ikasketara hurbiltzea.
- F. Hizkuntza eta musika-lengoaia.

- G. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala.
- H. Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.
- I. Teknologia digitalak.

Metodologia:

a. Printzipioak (IDU)

I. printzipioa: Irudikatzeko modu ugari ematea

- 1. Jarraibidea: Pertzepziorako hainbat aukera ematea
- 2. Jarraibidea: Hizkuntzarako, adierazpen matematikorako eta sinboloetarako aukera ugari ematea
- 3. Jarraibidea: Ulermenerako aukerak ematea

II. printzipioa: Ekintza eta adierazpen modu ugari ematea

- 4. Jarraibidea: Interakzio fisikorako aukerak ematea
- 5. Jarraibidea: Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea
- 6. Jarraibidea: Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea

III. printzipioa: Inplikatzeko modu ugari ematea

- 7. Jarraibidea: Interesa eta erakartzeko aukerak ematea
- 8. Jarraibidea: Ahaleginari eta iraunkortasunari eusteko aukerak ematea
- 9. Jarraibidea: Autoerregulaziorako aukerak ematea

b. Espazioen diseinua eta antolaketa ([geruzak](#))

c. Baliabideak eta tresnak

- Hezitzailea(k)
- Konketa handi bat dago haurren eskura, iturri batzuk ur hotza dute eta beste batzuk beroa.
- Haurren tamainako 3 komun
- Komun bakoitzaren ondoan komuneko papera zintzilikatua
- Bonba eskura
- Haurrak bainatzeko bainera
- Haurrak aldatzeko aldagailua
- Ur beroa
- Xaboi neutroa
- Haur bakoitzarentzat esponja
- Haurren batek botaka lehertzeko material espezifiko apalean
- Ile-lehorgailua
- Esku-oihalak

- Hiru hankako aulkia
- Hortz-eskuilak eta pasta
- Mukiak kentzeko papera
- Ispilua
- Aldatzeko arropak eta beharko balute fardelak
- Oinetan jartzeko alfonbra
- Otarre batean, ipuin, aldizkari, Berriako Mantangorri eta argazki bitxiz eginiko albuma
- Altzariak
- Argia
- Geruzak
- [Protokoloak](#)

d. Elkarreraginerako estrategiak:

Atal honetan, kontuan hartu behar da elkarreragin horietan zeintzuk parte hartzen duten eta aztertu nolakoak diren elkarreragin horiek (zein hizkuntza, zein lengoaia, zein jarrera(k) erabiltzen dituzten eta diren).

- Hezitzailea-Hezitzailea
- Hezitzailea(k)-haurra(k)
- Haurra(k)-haurra(k)
- Haurra(k)-Objektua(k)

e. Hezitzaileen esku-hartze bateratua: protokoloak

- [Protokoloa\(k\). Zaintza](#)
- Protokoloa: Hezitzailearen jarrera eta hitz egiteko era
 - Komunikazioa: begirada, koreografiako gorputz atalen eskari-
eskaintzak, eskari-eman-edukazio esaldiak (sortu/entzun),
adierazpenak.
 - Garbitasuna
 - Denborak
 - ...

f. Sustraiak:

- Jarrera(k), tonua, postura...
- Hizkuntza. Ahozotasuna /entzumena. Egokia, jantzia, aberatsa.
- Segurtasun afektiboa (denbora, jarrerak, haur bakoitzaren onarpena, laguntza eskaini, demandak errespetuz kudeatu, feedback doitu...).
- Ongizate fisiko eta psikikoa (heldu zein haurrena)

- Ereduak, eskolako edota herriko kultura, arau gutxi eta elkarbizitzara bideratuak...

g. Familiarekin lankidetz

- Protokoloa: Familiarekin harremana, elkarlana eta formazioa

Gure protokoloen berri jakinarazi eta ikasturtean zehar formazioa-informazio saioak antolatu hainbat gaien inguruan aritzeko (komuneko buelta, pardelaren aldaketa, pardela kentzea, pixa, kaka, higiena, harremanak, ardurak...).

Ebaluazioa:

- Ebaluazio-irizpideak (Curriculumetik eskolako errealitatera egokituta)

1. eremua:

1.1. Zentzumen-pertzepzioa eta mugimenduaren koordinazioak garatzean, gorputzaren ezagutzan aurrera egitea, ekintzak eta erreakzioa doituak eta orekatuak izanik.

1.2. Eguneroko bizitzako egoera honetan parte-hartzerakoan, segurtasun pertsonaleko sentimenduak azalratzea, norberarengan konfiantza izatea eta ekimena adieraztea.

1.3. Espazio honetako objektuak eta tresnak modu funtzionalean erabiltzea.

2.1. Norberaren beharrak eta sentimenduak identifikatzea eta adieraztea, emozioen kontrola pixkanaka doitzuz.

2.2. Eguneroko egoeretan laguntza eskaini eta eskatzea, lankidetzaren eta hezkidetzaren onurak baloratzuz.

2.3. Kezkak, gustuak eta lehentasunak adieraztea, eta lortutako lorpenei buruzko satisfakzio eta segurtasuna adieraztea.

3.1. Norberaren eta ingurunea zaintzarekin lotutako jarduerak errespetuz egitea, auto-konfiantza eta ekimena erakutsiz.

3.2. Gainerako pertsonetikiko errespetuzko jokabideak garatzea.

4.1. Bizikidetzaren arautzen duten eta aniztasunarekiko errespetua eta genero-berdintasuna bezalako balioak sustatzen dituzten proposamenetan aktiboki parte hartzea.

4.4. Gatazkak kudeatzeko alternatibak proposatzea, beste pertsona batzuen irizpidea kontuan hartuta.

3. eremua:

1.1 Modu aktiboan, espontaneoan eta banakako desberdintasunak errespetatuz geroz eta konplexutasun handiagoa duten komunikazio-egoeretan lengoia ezberdinek ematen duten aukeretan murgildu, jolas kideetara eta testuingurura egokituz, bere erreperitorio komunikatiboa doitzea.

2.1 Besteen mezuak eta komunikazio-asmoak eraginkortasunez interpretatzea.

3.1 Testuinguru formaletan eta informaletan hizkuntza-erreperitorioa areagotuz eta pixkanaka diskurtso eraginkorragoa, antolatuagoa eta koherenteagoa eraikiz, ahozko hizkuntzaren erabilera funtzionala gauzatzea,

- Hezitzaileen ebaluazioa: Protokoloa
 - *Autoebaluazioa (ni-zu)*. Galdera posibleak:
 - Haurren garapenean zerbait gehiago jakin behar dudala sentitzen dut?
 - Nola sentitu naiz azken denbora honetan?
 - Badago zerbait gehiago kostatzen zaidana edo katramilatzen naizena?
 - Ze espazioetan hobeto sentitzen naiz?
 - Niretzat eguneko zein momentua da goxoena/gogorrena?
 - Zer da zoriontsu egiten nauena?
 - Ze hurrekin pasatzen dut denbora gehiago/gutxiago? Zergatik? Ze erlazio sortzen dut berarekin?
 - Nola dago taldea nik haur batekin egiten dudanean esku-hartzea?
 - Zein lankiderekin daukat harreman onena eta zeinekin okerrera? Zergatik?
 - Nola sentitzen naiz koordinatzaile edo zuzendaritzarekin? Ze emozio sorrarazten dizkirate?
 - *Koebaluazioa (ni-zu-gu)*
- Haurren eboluzioa

Haurren ibilbidearen garapenaren analisia eta hausnarketa.
- Ebaluaziorako tresnak eta estrategiak
 - Dokumentazioa (behaketa taulak, egunerokoa...)
 - Behaketa-deboluzio bilerak

- Zer behatu daiteke?
 - i. Beraien arteko elkarrizketak.
 - ii. Haurrak adierazten baditu, bere pertzepzio eta kontakizunak (errelatoa).
 - iii. ...

Aprendizaia-proposamena:

- Harremanak
- Segurtasun afektiboa. Ongizate fisiko eta psikikoa
- Komunikazioa. Adierazpena. Ahozkoasuna eta entzumena. Elkarrizketak
- Iraunkortasuna
- Ohitura osasungarriak
- Objektuen erabilera

Jardueren sekuentzia (IDU estrategiak barne):

A. Hasierako fasea: Haur guztien ezaugarriak aintzat hartuta hezitzaileek espazioaren antolaketa eta diseinua egingo dute.

B. Garapen-fasea: Haurrak komunera joateko beharra sentitzen dutenean, bertan izango dute aurrez prestatuturiko espazioa/ekosistema eta hezitzaile bat.

C. Azken fasea:

- Denbora aurrera doan heinean, haur bakoitzak bere garapen eta bere aprendizaiaren arabera egingo du ibilbidea.
- Higienea, zaintza edota ongizatea egoera ezberdinenetan orain arte ikasitakoa transferitzen dutenean, beste espazio batzuetan, besteekin harreman eta zaintza momentuetan.
- Espazio honetan ikasitako jakintzak transferitzen dituztenean (barruan/kanpoan, asko/gutxi, hotza/beroa/epela/izoztua, zikina/loia/garbia/orbana, lehorra/buztia, beteta/hutsik, gaixo/pattal/osasuntsu...)
- Ahozko komunikazioan egon den bilakaera: hitz egiteko era/jarrera/aberastasuna...